

*Santiago Bidearen misterioa*¹

Ainhoa Urzelai Vicente

MHLI ikertaldea

UPV/EHU

Laburpena: Artikulu honen helburua Fernando Morillok idatzi eta Amaia Gonzálezek ilustratutako *Santiago Bidearen misterioa* obraren azterketa egitea da. Lan honetan bi pertsonaia nagusi ageri zaizkigu. Batetik, Ulises marinel zaharra dugu, Norvegiako itsasoaren erdian zegoela, ekaitz baten ondorioz itsasontzia hondoratu eta bizirik irtendako bakarra. Bestetik, Kemen mutil gazte eta positiboa dugu, beti irribarretsu dagoena. Bakoitzak arrazoi ezkutu bat du Santiago Bidea osatzeko, norbere buruari egindako promesa bat edo erronka bat. Biek bakarrik ekingo diote abenturari, baina bidaiaren hirugarren egunean, adiskidetu eta batera egingo dute erromesaldia Fisterrara. Bidean zehar bi lagunek bisitatzen dituzten lekuei buruzko informazioa jasoko du irakurleak, baina horrez gain, protagonistek beldurrak nola gainditzen dituzten ikusiko du. Funtsean, adiskidetasunari buruzko liburu bat da, elkar laguntzea zein garrantzitsua den erakusten duena.

Gako-hitzak: Santiago Bidea, Donejakue Bidea, erromesaldia, adiskidetasuna, beldurrak gainditzea.

Abstract: The aim of this paper is to propose an analysis of the book *Santiago Bidearen misterioa* [The mystery of the Camino de Santiago], written by Fernando Morillo and illustrated by Amaia González. In this book we find two main characters. On the one hand, we have the old sailor Ulysses, the only survivor of a ship sunk by a storm in the middle of the Norwegian sea. On the other hand, we have Kemen, a young and positive boy, who is always smiling. Each one has a hidden reason to complete the Camino de Santiago, a promise or a challenge to face. Both will begin the adventure alone, but after meeting during the third day of the trip, they will continue the pilgrimage together until they reach Finisterre. The reader will receive first-hand information about the places that the two friends visit along the way, but will also discover how the protagonists overcome their fears. In short, it is a book about friendship, and shows the importance of helping others.

Keywords: The Pilgrimage of Santiago de Compostela, Camino de Santiago, friendship, facing fears.

¹ Artikulu hau Eusko Jaurlaritzak babestutako MHLI ikertaldearen baitan burutu da (IT 1047-16). Egileak MINECOren doktorego aurreko beka du (PRE2018-086572).

Fernando Morillo eta Gaumin argitaletxea

Fernando Morillo (Azpeitia, 1974) da liburu honen idazlea. Gazte literatura landu du batez ere, baina baditu bestelako lan batzuk ere: biografia, saiakera edo nobela esaterako. Hainbat sari jaso ditu idazle azpeitiarrak, horien artean azpimarratzekoak dira 2003an *Izarmalkoak* (Aizkorri, 2002) liburuarekin irabazitako Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria edo *Ortzadarra sutan* (Elkar, 2002) liburuagatik irabazitako Igartza Saria. 2011. urtean, idazle azpeitiarrak Gaumin argitaletxea sortu zuen, bereziki haur eta gazte literatura lanak argitaratzeko eta irakurleek, batik bat gazteek, literaturaz gozatzeko helburuarekin. Argitaletxeak hainbat liburu sortu ditu Irakurketa Erraza formatuan, besteak beste aztergai duguna, zeinak audio-liburua (liburuko kapitulu guztiak audio bidez jasotzeko aukera eskaintzen duena) eta gida ludiko-pedagogikoa dituen. Material hori irakasle, guraso edo gainerako hezitzaileentzat baliagarri izan daiteke, obra irakurle gazteenekin lantzeko eta kontakizunari zuku guztia ateratzeko. 2014an, argitaletxe horrek berak gaztelaniara itzuli zuen mintzagai dugun obra, *El misterio del Camino de Santiago* izenburupean.

Liburuaren azterketa

Egileak berak bere web orrian² azaltzen duen moduan, benetan jazotako bi gertaeratan oinarrituta dago liburua, entzundako bi esperientzia harilkatuz sortu baitzuen aztergai dugun obra, betiere fikzioak lagunduta. Bi pertsonaia nagusi ageri zaizkigu, Ulises eta Kemen. Lehenengoari dagokionez, azpimarratzekoa da Morillok Santoñan ezagutu zuen Pepe erromesaren (Jose Antonio García jaiotzez) bizitzan oinarritua dagoela. Bigarren pertsonaia ere idazleak berak bistaz ezagutzen zuen mutil baten gainean dago eraikia. Izenburuak iradokitzen duen moduan, Santiago Bideari buruz hitz egiten digu liburuak, baita bideak ezkututzen dituen misterioez eta norberarengan sortzen duen magia ere. Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi adiskidetasunaz mintzo zaigula obra, eta baita beldurrak gainditzeari buruz ere. Askotarikoak dira Santiago Bidea egitera bultzatzen duten arrazoiak. Batzuek norbere burua ezagutzeko ekiten diote bideari, beste batzuek bidaia turistiko gisa, edo erlijio-arrazoiengatik, Santiago Handiaren hilobia gurtzeko adibidez. Bada bidea egitea erronka pertsonal gisa hartzen duenik ere. Nolanahi ere, liburu honetako bi protagonistek arrazoi ezkutu bat dute Santiago Bidea osatzeko eta hori da obran zehar irakurleak deskubrituko duena.

² Webgunea: <http://www.fernandomorillo.eu/santiago-bidearen-misterioa-irakurketa-erraza-formatuan/>.

Arestian aipatu bezala, bi dira liburuan nagusitzen diren pertsonaiak. Batetik, Ulises narratzaile autodiegetikoa dugu, marinel zaharra berau. Norvegiako itsasoaren erdian zegoela, ekaitz baten ondorioz itsasontzia hondoratu eta bizirik irtendako bakarra da. Gertaera hark bere bizia aldatu zuen, gizon ausarta izan arren, istripu hark 16 lagun eta bizitzeko ilusioa eraman baitzizkion brastakoan. Ezin aipatu gabe utzi liburu honetako protagonistak greziar mitologiako Ulises heroiak Itakarako itzuleran itsasoan bizi izan zituen ekaitzak eta bestelako gorabeherak oroitarazten dizkigula. Homero greziar poetak idatzitako *Odisea* liburuan ageri zaigu berau eta Homeroren Ulisesentzat etxera itzultzea Itakara bueltatzea den era berean, esan dezakegu aztergai dugun liburu honetako protagonistarentzat Santiagora joatea dela etxera itzultzea. Horrek iradoki lezake Santiagoko bidea eta Santiago bera guztion etxe dela. Aztergai dugun liburuan, eta istripuarekin lotuta, eszena benetan gogorra irudikatzen zaigu. Argi deskribatzen da nola hasi ziren laino beltzak hurbiltzen, nola hasi ziren olatuak bortitiz altxatzen eta nola hautsi zen itsasontzia horrenbeste itsaso-kolperekkin. Narratzaileak kontatzen digun moduan, Ulisesek Norvegiako itsaso hotzera egin zuen salto eta hasieran olatuekin borrokan ari ziren lagunak garrasiak entzuten bazituen ere, poliki-poliki oihu horiek gutxituz joan ziren, lagunak biziak itzaltzen joan ziren era berean. Amaia Gonzálezek marraztutako irudiak gertaera irudikatzen laguntzen digu, izan ere, itsasontzia itsaso basatian hondoratzen ageri zaigu, ekaitzaren erdian. Ulisesek, itsasoaren erdian bakarrik dagoela, bere buruari zin egiten dio esperientzia hartatik bizirik irteten bada munduko bide misteriosu guztiak ibiliko dituela. Marinel zaharrak zortzi hilabete igarotzen ditu ospitalean eta medikuek esaten dioten arren ezingo dela inoiz ibili, bere indar eta borondateari esker, gogor ekiten dio errehabilitazioari. Hori horrela, bi urte gurpil-aulkian eta beste horrenbeste makuluekin igaro ondoren, eta artean hankak ahul izan arren, Santiago Bidea egiteko deliberoa hartzen du, bere buruari egindako promesa betetzeko helburuarekin. Itsasoan gertatutako istripitik bizirik irten eta ibiltzea lortzeagatik pozik egon beharko lukeela sentitzen duen arren, Ulises konturatzen da beldur handi bat daukala barruan gordeta, baina uste du Santiago Bidera joateak bere beldur hura suntsituko duela eta lehen bezain pozik ibiliko dela: “Bizirik nintzela sentitu behar nuen berriro, itsasontzia hondoratu zen egun madarikatu hartan hil ez nintzela oihukatzeke” (18). Esanak esan, urduri, beldurrak arrastaka daramatzala eta bakarrik ekiten dio bidaiari, baina bere beldurrei aurre egiteko prest.

Bestetik, bigarren protagonistari dagokionez, beti irribarrea ezpainetan duen hogeitau urte inguruko Kemen gazte eta positiboa dugu. Hirugarren egunean egiten du topo Ulisesekin eta haren bidelagun izango da bidaiaren amaierara heldu arte. Kemenek sekretu latz bat gordetzen

du, baina berau ez zaigu argitzen liburuaren amaiera arte. Ulisesek bezala, promesa bat dauka betetzeko: azken bidaia osatzea. Bizitzaz eta lagunez maiteminduta dago eta oso gaixotasun larria izan arren, irribarre zabala eta laguntzeko prestutasuna darama uneoro. Kemenek lezio ederrak ematen dizkio Ulisesi: minari aurre egiten, beldurrei aurrez aurre begiratzeko eta horiei buru egiten, amore ez ematen edo zorientasunaren giltza bilatzen irakasten dio, eta batez ere, une zailtan barre egiten erakusten dio. Ulisesek berak diosku Kemenek lagundu ziola bere motxila handia arintzen, “Ez bakarrik oihalezko motxila. Batez ere bestea, gizakiok konturatu gabe gainean eramaten duguna, askotan, amesgaiztoz eta tristurez betea” (77), baina gaineratzen digu Kemeni esker sartu zuela motxila hartan, berriro, irribarrea.

Mintzagai dugun liburuak argi erakusten du Santiago Bideak magia egiten duela bidaiariengan (baita bestelako bidaiak ere) eta irakurleak erraz antzemango du erromesaldiak protagonistengan eragiten duen aldaketa, batez ere Ulisesi dagokionez. Narratzaileak dioskunez, itsasoko istripuaren ondoren Ulisesek bere burua bakartzen du, ez du inorekin hitz egin nahi eta ez du gogorik beste erromesekin egoteko. Hala ere, hirugarren egunean, Kemenekin batu eta bidaideekin jarrera harkorrakoa hartzen du. Gauza bertsua esan dezakegu iluntasunari buruz. Istripua baino lehen gustura egoten zen itsasontzitik zeru izartuari begira, baina ezbeharraz gero, ikara handia zion iluntasunari. Hala ere, Kemeni esker, iluntasunaz gozatzen ikasten du Ulisesek. Bereziki azpimarragarria iruditu zait liburuaren amaieran marinel zaharrak (eta irakurleak berak) jasotzen duen irakaspena. Ulisesek Kemen lehenengo aldiz ikusten duenean, irribarre handi bat eta motxila txiki bat lagun duela, honako hau pentsatzen du: “Gazte batentzat erraza da zorientsu izatea, alaia eta atsegina. Neu ere halakoa nintzen lehen. Orain, nire oroitzapenak motxila bezain astunak ziren. Gainean 500 kilo banitu bezala sentitzen nintzen!” (36). Baina amaieran, Kemenen gaixotasunaren berri duenean, ulertzen du nork bere arazoak dituela eta ezin dezakegula jakin albokoak zein zama garraiatzen duen. Ez hori bakarrik, konturatzen da gertatzen zaiguna gertatzen zaigula, minak eta nekeak eramangarriagoak direla irribarre batekin. Zer esanik ez zama arinduko digun lagun on bat alboan badugu. Ulisesek aipatzen digun moduan, “beti da ona lagunak hurbil izatea, egoera onetan eta baita zailtan ere” (11). Adierazgarria da Ulisesek, Heriorekin borrokan ari dela, uretan hilda dagoen bere lagun Pavlov-en gorpua aurkitu eta atsedean hartzeko hari heltzen dioneko pasarte. Hasieran ez da konturatzen gorpu bat dela, baina hildako laguna dela ohartzean askatu egiten du. Segundo batzuen ondoren, ordea, berriz heltzen dio, eta honakoa diosku: “Hildakoa ni banintz, gustura izango nintzateke lagun baten

euskarri. Lagunak laguntzeko gaudelako, baita hilda gaudenean ere” (13). Lerro horiek adiskidetasunaren aldarriztat har ditzakegu.

Gorago aipatu bezala, laguntasunari buruzkoa da Morillok eta Gonzálezek ondu duten liburu hau eta maiz azpimarratzen da zein onuragarria (eta ezinbestekoa) den besteak laguntzea eta daukaguna partekatzea. Batetik, bi protagonistek elkar lagunduz egiten diote aurrera bideari, baina bestetik, Santiago Bidean zehar aurkitzen dituztenei ere laguntza eskaintzen diete. Esanguratsua da jatekorik gabe eta kale gorrian dagoen bikote adindu bati laguntzen dioteneko pasartea. Kemenek eta Ulisesek gainean daramaten janari guztia ematen die, nahiz eta jakin ez dutela janari gehiagorik ez eta dirua ateratzeko aukerarik ere. Baina Kemenek gogorarazten digun moduan, beti dago guk baino behar handiagoa duen jendea. Ez hori bakarrik, jakitera ematen zaigunez, Santiago Bidean aurkitzen dituzten herriak ere ibiltariak laguntzera ohituta daude.

Herriak ahotan hartu ditugula, ezin aipatu gabe utzi Santiago Bidean barrena protagonistek zeharkatzen dituzten herrien eta txokoen deskribapenak ageri zaizkigula. Horrez gain, liburuaren hasieran bertan, protagonistek egiten duten ibilbidearen mapa bat ageri zaigu, narrazioan aipatzen diren tokiekin. Azpimarragarria da, besteak beste, erromesek zeharkatzen duten Garesko zubi famatua (zeinaren argazkia liburuaren azalean agertzen den) edo Ulisesek deskribatzen duen Donibane Garazi, bere hitzetan: Nafarroa Behereko hiriburu zoragarria, aldapatsua, kolorez eta mugimenduz beterik, harresi zahar eta handiarekin, kaleetako artisau-postuekin, eguzki-oihalekin, bidaiariak dituena bazter guztietan... Bideanabar, ez dago soberan gogoraraztea hiriburu horrek, edo nahiago bada, Garazi eskualdeak, aparteko garrantzia duela euskaldunon iruditerian. Inguru horietan jaio zen Bernart Etxepare, 1545ean argitaratutako *Linguae Vasconum Primitiae* obraren egilea, euskaraz idatzitako lehen liburuaren egilea. Etxepare Donibanen egon zen apaiz eta Garaziko bikario orokor ere izan zen. Ez da harritzekoa, beraz, ekialdeko behe-nafarreran, eta zehazki Garazi eskualdeko mintzoan, idatzi izana bere liburua. Aipatzekoa da arestian aipatutako liburuaren “Sautrela” zein “Kontrapas” bertsoetan laudatu eta bedeinkatu egiten duela Garazi, ziurrenik liburua ingurumari horietan sortu zelako. Inguru horrez gain, bidean aurkitutako beste toki batzuen deskribapen xeheak ematen dira. Burgos harrizko hiri izendatzen du, harrizko harresi, kale zein harrizko katedral sendo eta liluragarriarekin. Kolorez beteriko leiho ikusgarriak dituen Leongo katedral erraldoia ere aipatzen da, baita Eunateko Andre Mariaren eliza bitxia, UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatutakoa. Poferradatik gertu dagoen Isiltasunaren Bailara ageri zaigu kontakizunean, garai bateko druiden baso sakratua omen

dena; baina baita Monte do Gozo mendia edo Fisterra ere. Ezin aipatu gabe utzi erromesen helmuga den Santiago hiria. Gonzálezen irudiak irudikatzen duen moduan, liburu honetako bi protagonistei emozioek gainezka egiten die Obradoiroko plazara sartu eta katedralaren aurrean geratzen direnean. Narratzaileak dioskunez, Santiagoko katedralak hipnotizatuta uzten du Ulises eta bertako Aintzaren Atariaren deskribapena ematen digu: figurak harrian irudikatuak, pertsonak, animaliak, denetariko filigranak eta batez ere ametsak, katedrala eraiki zuten harginenak eta ibiltarienak.

Azkenik, obraren gaineko azterketari amaiera emateko, esan dezakegu bidaia baten kronika egiten digula Morillok, Santiago Bidearen kronika txiki bat. Baina bidaia fisiko horrez gain, ibilaldi pertsonalago baten berri izango du irakurleak, Ulises protagonistak bere barruko beldurrekin eta kezkekin egiten duena hain zuzen.

Erreferentzia bibliografikoak

Morillo, F. (2014), *Santiago Bidearen misterioa*, il. Amaia González, Irun: Gaumin.

Artikulu honen iturria

Urzelai, A. (2020). Santiago bidearen misterioa. In M. Neira, B. A. Roig, I. Soto (koord.), *Camiño e peregrinacións na LIX: Compostela no horizonte* (393-401). Vigo: Edicions Xerais De Galicia.